



“Haur literaturari alfonbra gorria falta zaio”

Mariasun Landa

Ohe azpiko krokodiloak galtzerdi suizida
irensten duenean...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Hara, Parisera 68ko urrian joan zena!

Beti berandu! Askatasuna ez ezik nire burua topatu nuen. *Fille au père* ez, *bonne à tout faire* ginen, baina ederra izan zen bizimodua nahi erara biziz aurrera ateratzea.

Maiteminduei beti geratzen zaie Paris. Bertan bizi izandakoei?

Meka aurkitu nuen Parisen eta kulturalki frantses-zalea naiz. Orduan eman nituen pausoak eman nituelako naiz naizen bezalakoa.

Haur literatura bigarren mailakoa kontsideratzen dela jakingo bazenu...

Haur literaturari glamurra falta zaio, alfonbra gorria, baina ukazina da geroz eta garrantzia sozial handiagoa duela. Kanon akademikoetatik kanpo gaude, komunikabideetan tarte urria daukagu, baina zer gertatzen da Harry Potter-ekin?

Haurrak tontotzat hartzen ez dituen literaturak ere saltzen duela.

Ez dakit haurrak tontotzat ala jainko txikitat dauzkagun, baina helduon haurtzaro idealizatua eskaini nahi zaie askotan, eta literarioki dena txikituta, dena papilan. Ez ba! Gerora irakurle gaituak izan nahi baditugu eskailerak igotzen lagundu behar diegu.

Esadazu ez dagoela soiltasuna baino konplikatuagorik.

Haur literaturaren balio estetikoak hizkuntzaren tratamenduan datza. Nola heldu sakoneara ahalik eta idazkera gardenenarekin? Ez

dago gai taburik, nola kontatu asmatzen baduzu.

Berriz arintasunaren eta arinkeria-artearen arteko desberdintasunarekin?

Haur literaturak darabilen umorea eredugarria zait. Euskal literaturan, oro har, askoz hobeto landu da umorea haurrentzat helduentzat baino. Zergatik kamusten da umorea helduentzat idaztean?

Helduek sari ospetsuen irabazleei buruzko umorea egiten dutelako!

Sari horiek beti jarriko dira zalantzan, batez ere besteek jasotzen dituztenean.

Inozoa ni, ahaztuta neukan Euskadi Saria eta Espainiako Sari Nazionala irabaziak dituzula.

Galdu ala irabazi, sari horiek ez dira serio hartu behar. Daukaten garrantzia daukate, ez gehiago. Hori diot, galtzaileek ez ezik, irabazle askok ere saria erlatibizatu behar luketelako.

Ez izan hain apala, hain inkonformista...

Ezinbestekoa da literarioki inkonformista izatea. Literaturak emoziotik badu, geroz eta zorrotzago eta koxka bat harago idatzi nahian ari zarelako da. Oso erraza da errepikatzea. Pentsa, batzuetan horixe eskatzen dizute.

Inkonformismo literarioaz ez, eguneroko bizi-tzaz ari nintzen ni.

Galtzerdi suizida bezala inkonformista naiz, baina urteak aurrera joan ahala, inkonformismoa geroz eta erlatiboagoa dela iruditzen zait. ■